

BILBOK INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK ATERATAKO EMAKUMEAK GOGORATUKO DITU MESEDEETAKO KAIAN, HORMA-IRUDI HANDI BATEAN

- Ruth Juan ([Junita Makina](#)) artista arduratu da aste hauetan artelana egiteaz.
- Esku-hartze horrek modu sinbolikoan erakutsiko du emakume biktimek bizi duten prozesua, indarkeriarik sotilenetik basatienera.
- Genero-indarkeriaren biktima izan diren eta bizirik atera diren emakumeei eta haien seme-alaba adingabeei errekonozimendua eta erreparazioa emateko udal-estrategiaren barruan dago.

(*Bilbon, 2021eko otsailaren 12an*).- Bilboko Udalak **Ruth Juan ([Junita Makina](#))** artistari eskatu dio genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei zuzendutako memoria- eta erreparazio-mural bat diseinatzeko. Aste honetan, artista lanean hasi da Bilbo Zaharra auzoko Mesedeetako kaian, erdigunean eta ikusgarritasun handiarekin kokatuko den obraren lehen zirriborroen gainean.

Ekimen artistiko hau genero-indarkeriaren biktima izan diren eta bizirik atera diren emakumeei eta haien seme-alaba adingabeei errekonozimendu eta erreparazio sinbolikoa emateko udal-estrategiaren barruan kokatzen da, "*eskubidea berrezartzeaz, aintzatespen sozialaz eta memoria kolektiboa eraikitzeaz ari gara, indarkeria matxistetatik bizirik atera diren biktimen errekonozimenduan sakontzen jarraitzeko*", azaldu du **Nekane Alonso** Berdintasuneko zinegotziak. Gainera, azpimarratu duenez, "*prozesuak diseinatu behar ditugu emakumeak esku-hartzearen erdian kokatzeko. Emakumeak biktimatzat hartzen direnean, ahalduntze-prozesu bat baitakar, jasandako indarkeria salatzeko eta "etorkizuneko irteeran pentsatuz" kaltea gainditzeko aukera emango diena. Eta "bizirik atera" direnak izango dira, eta hemen eraldatze-agenteen zeregin soziala izango dute*". Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen oroimenerako eta memoriarako gun bat sortzeko ekintza hori joan den urteko Udal Aurrekontuaren Proiektuan onartutako zuzenketa bat izan zen.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA-PROZESUA

Horma-irudi honek modu sinbolikoan erakusten du "*indarkeria matxistaren zikloa*", emakume biktimek bizi duten prozesua, indarkeria sotilenetik basatieneraino. Ruth Juanek indarkeria matxista lehen pertsonan pairatu dutenen eskutik ezagutu ahal izan ditu fase horiek, **Bizitu Elkarte**a osatzen duten emakume talde baten testigantza pertsonalak izan baititu obra artistiko hau diseinatzeko.

Margolana Mesedeetako kaiako hormaren neurriaren eta harriaren ezaugarrietara egokituko da, eta fase horiek islatuko dituzten hainbat sekuentziaz osatuko da. Horren harira, Nekane Alonsok aurreratu duenez, muralean "*biktimek bizi dituzten indarkerien intentsitatea eta maila ezagutzeko aukera izango dugu. Iluntasunik handienez daudenean*

eta beren bizitzarekin jarraitzeko irtetea lortzen dutenean, berriz jaiotzen dira eta beren burua beren bizitzaren erdigune sentitzen dute."

Hurrengo hiru asteetan, emakumea protagonista bakarra izango duen horma-irudiaren emaitza ikusiko dugu. *"Egiturazko indarkeria hori sortzen jarraitzen duten patriarkatuaren eredu matxistei buruzko kritika eta salaketa da", azaldu du zinegotziak. Horretarako, emakumeen gorputz biluzietan oinarritzen da artista, eta horren gainean, Ruth Juanek honako hau zehaztu du: "emakumeak, hiru metroko altuera dutenak, biluzik egongo dira, inolako balio erantsirik eman beharrik gabe, hala nola janzkera, eta, horrela, indarkeria matxistak haien gorputzetan duen eragina erakustea, gorputza oinazearen gune den aldetik eta bertan bizi izandako indarkeria-egoeraren ondoriozko gaixotasunak sortzen baitira"; izan ere, adierazi duenez, "hainbat emakumerekin hitz egiteko aukera izan dut eta beren kontakizunak, etengabe, gorputzari, gaixotasunei, tentsioari eta indarkeriek gorputzean dituzten eraginei buruzkoak ziren."*

RUTH JUAN

Ruth Juan Bilboko San Francisco auzoan bizi da duela 12 urtetik. Bere lanak hiria du ardatz, eguneroko bizimodua, gizarte auziak eta lankidetzak proiektuak. Bilbao Arte Fundazioak beka bat eman zion 2013, eta han sortu zuen lehen liburu irudiztatua, "Bilbo Zaharra, tolerantzia eremua". Gaur egun, hainbat proiektutan ari da irudiztatzailerik freelance gisa, eta berak sortu du [JunitaMakina](#) marka. Liburuetarako marrazkiak edo irudi grafikozko lanak nahiz horma irudi koloretsuak egiten ditu; horma-irudi horiek Bilbo Zaharreko hainbat gunetan daude kokatuta, hala nola Marzana ostatuan, Gorte kalean, Bailen kalean eta Sortze Garbiaren komentuan. Horma-irudietako esku-hartze hauek Bilboko Udalak sustatuak dira, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoek eratzen duten hiri-eremua biziberritzeko eta berritzeko estrategiaren barruan.

SARE SOZIALAK:

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **Bilbao Berdintasuna:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)
- **Bilbao Kultura:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

BILBAO RECUERDA A LAS MUJERES SUPERVIVIENTES DE LA VIOLENCIA MACHISTA EN UN GRAN MURAL EN EL MUELLE DE LA MERCED

- La artista Ruth Juan ([Junita Makina](#)) se encarga durante estas semanas de confeccionar la obra artística.
- Esta intervención mostrará de manera simbólica el proceso que viven las mujeres víctimas, desde la violencia más sutil hasta la más brutal.
- Se enmarca en la estrategia municipal de reconocimiento y reparación de las mujeres y sus hijas e hijos menores de edad víctimas y supervivientes de la violencia de género.

(Bilbao, 12 de febrero de 2021).- El Ayuntamiento de Bilbao ha encargado a la artista **Ruth Juan** ([Junita Makina](#)) el diseño de **un mural de memoria y reparación dedicado a las mujeres supervivientes de la violencia de género**. Esta semana, la artista ha comenzado a trabajar sobre los primeros esbozos de la obra que se va a situar en un sitio céntrico y con gran visibilidad en la Villa, en el Muelle de La Merced de Bilbao La Vieja.

Esta iniciativa artística se enmarca en la **estrategia municipal de reconocimiento y reparación simbólica de las mujeres y sus hijas e hijos menores de edad víctimas y supervivientes de la violencia de género**, *“hablamos de restitución del derecho, de reconocimiento social y de construir memoria colectiva para seguir profundizando en el reconocimiento de las mujeres supervivientes de las violencias machistas”*, ha explicado **Nekane Alonso**, Concejala de Igualdad.

Además, ha subrayado, *“tenemos que diseñar procesos donde las mujeres se sitúen en el centro de la intervención. Cuando las mujeres se reconocen como víctimas, ese momento es muy importante porque supone iniciar el proceso de empoderamiento que les va a permitir denunciar la violencia sufrida y superar el daño “pensando en la futura salida”. Pasan a ser “supervivientes” y aquí desempeñan un papel social de agentes de transformación”*. Esta acción de crear un espacio para el recuerdo y memoria de las mujeres víctimas de violencia machista fue una enmienda aprobada en el Proyecto de Presupuesto Municipales del pasado año.

PROCESO DE VIOLENCIA DE LAS MUJERES

Este mural muestra de manera simbólica el **“ciclo de la violencia machista”**, el proceso que viven las mujeres víctimas, desde la violencia más sutil hasta la más brutal. Ruth Juan ha podido conocer estas fases de la mano de aquellas que han sufrido la violencia machista en primera persona, dado que para diseñar esta obra artística ha contado con los testimonios personales de un grupo de mujeres que forman parte de la **Asociación Bizitu Elkarte**

La pintura, que se va a adaptar a las características de la piedra y tamaño de la pared del Muelle de La Merced, se conformará de diferentes secuencias que reflejarán esas fases. En este sentido, Nekane Alonso ha adelantado que, en el mural, una vez finalizado, *“podremos reconocer el grado y la intensidad de las violencias que viven las víctimas, desde cuando se encuentran en la máxima oscuridad hasta cuando logran salir y seguir con su vida, volviendo a nacer, sintiéndose a sí mismas como el centro de su vida”*.

En las próximas tres semanas se irá descubriendo el resultado del mural que contará con la figura de la mujer como única protagonista. *“Es una crítica y denuncia sobre los patrones machistas del patriarcado que siguen generando esta violencia estructural”*, ha explicado la Concejala. Para ello, la artista se basa en los cuerpos femeninos desnudos, y sobre ello, **Ruth Juan** ha puntualizado, *“las mujeres, de tres metros de altura, estarán desnudas sin necesidad de darles ningún valor añadido como la vestimenta, y así mostrar el impacto de la violencia machista en sus cuerpos, como centro del dolor y donde se generan enfermedades derivadas de la situación de violencia vivida”*, que según ha revelado, *“las mujeres con las que tenido oportunidad de hablar en sus relatos se referían constantemente al cuerpo, a las enfermedades, a la tensión y a las consecuencias de las violencias en el propio cuerpo”*.

RUTH JUAN

Ruth Juan vive en el barrio bilbaino de San Francisco desde hace 12 años. Su trabajo se centra en lo urbano, en lo cotidiano, en las problemáticas sociales y en los proyectos colaborativos. Becada por la [Fundación Bilbao Arte](#) en 2013, creó allí su primer libro ilustrado, ‘Bilbao La Vieja, espacio de tolerancia’. Actualmente, emprende diferentes proyectos como ilustradora freelance y es la creadora de la marca [Junita Makina](#). Su trabajo abarca desde ilustraciones para libros o trabajos de imagen gráfica y coloristas murales ubicados en espacios de Bilbao La Vieja, como el bar Marzana, la calle Cortes, la calle Bailén y el Convento de la Concepción en Zabala. Estas intervenciones murales están impulsadas por el Ayuntamiento de Bilbao, dentro de la estrategia de revitalización y renovación del área urbana de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala.

REDES SOCIALES:

- **Bilbao Udala:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **Bilbao Berdintasuna:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)
- **Bilbao Kultura:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)